

# NOHAM

Moda etengabe aldatzen den mundu batean bizi gara, zer egin dezakegu jada erabiltzen ez dugun arroparekin? Erantzuna erraza da: berrerabili! Eta horixe egiten dugu Nohamen.

Noham bigarren eskuko arropa-marka bat da, kalitate handiko eta baldintza bikainetako arropak prezio eskuragarrietan eskaintzeaz harro dagoena. Egunerokotasunerako ustekabeko zerbaiten bila bazabiltza, aukera berezi baterako jantzi dotore baten bila bazabiltza, edo zure jantzitegia berritu nahi baduzu, Nohamen gustu eta estilo guztietarako arropa sorta zabala aurkituko duzu.

Gainera, Nohamen erostean, dirua aurrezteaz gain, ingurumenaren alde ere zerbait ona egiten ari zara. Urtero, milioika tona arropa zabortegietan amaitzen dute, eta horrek asko laguntzen du planetaren kutsaduran. Baina Noham enpresari arropa ematean, kopuru hori murrizten eta bizimodu jasangarriagoa eta kontzienteagoa sustatzen laguntzen ari zara.

Beraz, arropa berria erostea pentsatzen duzun hurrengo aldian, gogoratu alternatiba adiskidetsuago bat dagoela ingurumenarekin eta zure poltsikoarekin: Noham.

Gu zuek gure webgunearen bidez eskatzen dituzuen arropa zuen etxeetara azkar eta seguru iristez arduratzen gara. Gure enpresan jendea ez nahi duten edo gutxi erabiltzen duten arropa eskaintzen digute, horrela, saihestu egiten dugu arropa gehiegi kontsumitzeagatik itsasoan edo landetan tona bat arropa geratzea. Zuen arropa eman nahi baduzue, sar zaitetz gure web orrian ([www.noham.es](http://www.noham.es)) eta sakatu ezazue “erabiltzen ez dudan arropa bidali nahi dut” jartzen duen atalean edo jar zaitetz gurekin harremanetan. Gu arduratuko gara bidalketaz eta horien gastuez, eta deitzean edo atal horretan sartzean azalduko dizuegu nola bidali behar diguzuen arropa.

Zuen arropa bidali ondoren, guk selekzio bat egiten dugu gero salmentan jartzeko. Arropa salgai jarri aurretik, arropa konpondu eta gure markaren ukitua emango diogu, gero hori gure webgunetik erosi dezakezute. Ondoren, enpakatzen dugu eta zu nahi duzun tokira bidaltzen dugu.

<b>NOHAM CANVAS</b>	<u>Funtsezko sozietateak</u> <ul style="list-style-type: none"><li>• Inbertitzaileak</li><li>• Hornitzaileak (arropa-emaileak)</li></ul>	<u>Funtsezko jarduerak</u> <ul style="list-style-type: none"><li>• Merkaturatzea</li><li>• Arropa salmenta</li><li>• Marketina</li><li>• Web-orria eta salmentak kudeatzea</li></ul>	<u>Balorezko proposamena</u> <ul style="list-style-type: none"><li>• Espainia osoan berdina</li><li>• Produktuen entrega azkarra</li><li>• Prezio eskuragarriak</li></ul>	<u>Bezerorekiko harremana</u> <ul style="list-style-type: none"><li>• Online</li><li>• Bezeroentzako arreta (erosketak ondorengo zerbitzua)</li></ul>	<u>Bezeroak</u> <ul style="list-style-type: none"><li>• Neskak eta mutillak</li><li>• Haurrak (0-11 urte)</li><li>• Nerabeak (12-22 urte)</li><li>• Helduak (23-60 urte)</li><li>• Hirugarren adineko pertsonak (60+ urte)</li></ul>
		<u>Funtsezko baliabideak</u> <ul style="list-style-type: none"><li>• Langileak</li><li>• Teknologia</li><li>• Arropa</li></ul>		<u>Kanalak</u> <ul style="list-style-type: none"><li>• Sare sozialak</li><li>• Noham.es</li><li>• iOS eta Android-entzako aplikazioak</li></ul>	
	<u>Kostuen egitura</u> <ul style="list-style-type: none"><li>• Bidalketak (Enpresa bat kontratatu)</li><li>• Paketatzea</li><li>• Langileen soldatak</li><li>• Publizitatea</li></ul>	<u>Diru-iturriak</u> <ul style="list-style-type: none"><li>• Salmentak</li><li>• Diru-laguntzak (Eusko Jaurlaritzaz)</li><li>• Publizitatea</li></ul>			